

Oihartzun handia izan zuen ezker abertzaleko buruzagien hitzaldiak

2011/11/29

Areto nagusia lepo bete zen Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan, entzuteko Rofi Etxeberria eta Iñigo Iruin ezker abertzaleko ordezkariak. Ikasleek gain, kanpoko jendea ere etorri zen ekitaldira, baita kazetariak ere. Hala ere, ekitaldiak bi zati izan zituen: bat irekia, eta beraz Internet bidez eman zuten MUTELEBISTAK, eta bestea pribatua, kazetari eta hedabide barik. Twitter-en ere mezu dezente trukatu ziren ekitaldiak aurrera egin ahala, **#paradigma** etiketa erabili.

Rofi Etxeberriak azaldu zituen ezker abertzalearen ekarpenak eta eginkizun politikoez. Adierazi zuen, halaber, asmoa dutela ahal duten leku guztietan gobernatzeko. Haren hitzaldiaren ildo nagusiak Berria eta Gara egunkarietan irakur daitezke. Iñigo Iruinek, bestalde, azaldu zuen zertan dagoen ETAko presoaren egoera, eta zer aukera dauden haien egoera erabat konpontzeko. Galde-erantzunetan entzuleek galdera asko egin zizkieten hizlariari. Guztira, hiru orduko saioa izan zen, trinkoa eta mamitsua.

